

edetaldea





EDE Taldea

EDE Taldea bere jatorria **EDE Fundazioan** du, Bizkaiko Eliza Diozesiarrak sustatutako irabazi-asmorik gabeko entitatea. Bere ibilbidea 1976an hasi zuen eta Bizkaiko garapen sozial, kultural eta hezkuntzakoaren alde egiten du apustu, giza esku-hartze eremuan lan egiten duten pertsona eta entitateei zuzendutako programa eta zerbitzuak ezarri eta bultzatzearen bidez.

EDE Fundazioaren ibilbideak hogeita hamar urtetik gorako garapenaren eta lanaren bermea du eta **Suspergintza Elkarteak** proiektu sozial, kultural eta hezkuntzazkoen dinamizazioan daramatzen hogeit hamar urtetik gorako eskarmentuaz aberasten da.

Biak Bizkaiko erreferente argiak bihurtu dira bere eremuetan. Eta 2007ko erdialdera laguntza teknikoko zerbitzuak **ST3 Elkartean** zehazten dira eta entitate eta elkartei neurrirako erantzunak eskaintzen die.

Erreferentzia Bizkaiko giza esku-hartzean

EDE Taldea Bizkaiko giza esku-hartze eremuan erreferentzia nagusia da. **50.000 pertsonari zuzenki eta 240 entitateei eman zaie arreta** (2007. urtean zehar).

- 10.000 trebakuntza ordu eman die 3.000 langile eta boluntarioei.
- 1.000 pertsonari lagundu die lan-orientabidean eta entitateen promozioan.
- 30.000 ordu giza kontsultoretza eta entitateen promozioan eskaini ditu.
- 43.000 pertsona ingururi informazio eta dokumentazio zerbitzuak lagundu die.
- Haur, gazte eta helduekin programa sozial, kultural eta hezkuntza programetan 145.000 ordu inguru inbertitu ditu. Halaber, 0 eta 3 urtera arteko 140 haur ingururi eman zaie arreta.
- Aterpetxe Sarean 70.000 egonaldi kudeatu ditu.

Egun **gizataldea 419 pertsonak** osatzen dute: 18 pertsona zuzendaritza taldean, 45 teknikari zerbitzu ezberdinetan, 268 pertsona programetan lan egiten eta 88 pertsona laguntza eginkizunetan. 60 boluntario eta 75 pertsona gehiago irakasle laguntzaileez gain.

Halaber, **EDE Taldeak aliantza eta lankidetzak** mantentzen ditu garapen sozialean sozial, kultural eta hezkuntza eremuetan inplikaturik dauden erakunde eta entitateekin. Besteak beste; Bilboko Apezpikutegia, Cáritas Diocesana, Euskalerriko Eskautak, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udaletxea eta BBK.

EDE Taldeak, ere, giza esku-hartze eremuan ekimen anitzetan **hartzen du parte**: Gizardatz (enpresa soziala), Didania (astialdi federazioa), Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta Astialdi Foroa, Fiare (Banku Etikoa), Kiribil (Tokiko garapen komunitarioa). Pobreziaren aurkako Sarean hartzen du parte (EAPN) eta Gizarteratze Enpresa Sarean, Berdintasunarengatik Enpresa Sarean edo Aterpetxe Pribatuen estatu-sarean dago. Tokiko akzio eremuan ere inplikaturik dago; Harribide Fundazioa, Umeak Kanean, Aisibizia,...

EDE TALDEA OSATZEN DUTEN HIRU ENTITATEAK

EDE Fundazioa

www.fundacionede.org



Bizkaiko garapen sozial, kultural eta hezkuntza sustatzen ditu, pertsona, entitate eta sareentzako trebakuntza eta giza kontsultoretza zerbitzuen garapenaren bidez.

- Ekintza sozialeko boluntario eta profesionalentzako trebakuntza eta orientazio programak.
- Giza kontsultoretza, laguntza zerbitzua eta erakunde garapena.
- Informazio, dokumentazio eta azterketa sozialeko zerbitzuak.
- Lan orientazio eta bitartekotza zerbitzuak.
- Sentsibilizazio, promozio eta bitartekotza instituzionaleko ekintzak.

Suspergintza Elkartea

www.suspergintza.net



Berez edo erakunde publikoekin eta entitate pribatuekin lankidetzan, pertsona eta taldeen garapen integralera zuzenduta dauden esku-hartze sozial, kultural eta hezkuntzazko eremuan programa eta ekipamenduak diseinatu eta kudeatzen ditu.

- Haur eta nerabeentzako gizarte-hezkuntzazko programak
- Haur-eskolak
- Gazte dinamizazioa
- Programa eta ekipamendu kulturalak
- Gazteentzako aterpetxeak eta ikasle-egoitzak
- Gizarte- eta laguntza-ostatuak.
- Heldu, familia, emakume, adingabe, etorkin, zaintzaile eta abarrei zuzendutako programa sozialak.

ST3 Elkartea

www.st3elkartea.net



Bere zerbitzu ezberdinen bidez erantzun integralak ematen dizkio Hirugarren Sektoroko entitateetan ager daiteken edozein arazo teknikori.

- Komunikazioa eta diseinua.
- Informatika eta teknologia berriak.
- Aholkularitza eta ekonomia eta lan-kudeaketa.
- Instalazio eta lokalen mantentze eta konponketa.

Ede Taldearen esku-hartze eremuak

EDE Taldeak, bere berriazko izaera eta jardunbidea ahaztu gabe, bere eginkizuna zeharkako moduan norabidetu eta jarraitzen duen esku-hartze eremu ezberdinen alde egiten du apustu bereziki, ondorengo bitartez;

- Hezkuntza-jarduera haur, nerabe, gazte eta bere familiekin
- Bazterkerian erortzeko arriskuan dauden kolektiboak
- Adinekoak eta bere zaintzaileak
- Emakumea eta ekitatea
- Boluntariotza eta partaidetza soziala
- Erakunde garapena eta entitate sozialen kudeaketa hobetzea
- Bakea eta gatazken ebazpena
- Immigrazioa eta kulturartekotasuna.
- Ingurumen hezkuntza eta garapen iraunkorra
- Kultura ekintza
- Eliza

EDE Fundazioa

EDE Fundazioa > Esku-hartze sozialarentzako trebakuntza

Zerbitzu sozial, kultural eta hezkuntzazko pertsona eta entitateei zuzenduta dago. Ikaslea protagonista aktibo izan dadin pertsonalizatutako arretan eta parte hartuzko metodologian oinarritutako hezkuntza eredua da. Gizartera lotuta dauden pertsonen osatuta dago irakasleria, errealitatearekin kontaktuan eta etengabeko islatze-prosezu batean.

• Boluntariotza eta elkarteentzako trebakuntza (Bolunta)

Boluntariotza eremuan lan egiten duten pertsonentzat, bere behar espezifikoetara erantzuna ematen. EDE Fundazioaren trebakuntza eskaintza astialdiko monitore eta zuzendari tituluetan biltzen dira, Eusko Jaurlaritzak ofizialki onartutako bi eskolen bidez; **Aisialdiko Eskola** (bederatzi sail ditu: Adierazpen Pedagogia, Fede Pedagogia, Natur-pedagogia, Herri Aukera, Talde-dinamika, Psikopedagogia, Indarkeria eza, Eskultismoa eta Hezkidetzeta) eta **Animazio Soziokulturaleko Eskola**.

Bolunta (Boluntariotza eta elkarteentzako agentzia) prestakuntza foroaren bidez, ikastaroak, tailerrak eta mintegiak antolatzen dira. Halaber, boluntarioen trebakuntzan laguntza eskaintzen da eta aholkularitza trebakuntza planentzako. Guzti hau entitate sozialentzako itunpeko trebakuntza zabal baten bidez, elkarte bakoitzarekin eginda bere behar espezifikoek erantzun emateko. Espezializatutako ikastaro bat ematek egingo den trebakuntza jardueraren eraginkortasuna bermatzeko trebakuntza plan oso batera.

Entitate, elkarte, ekintza solidarioarekin erlazionatutako administrazioekin, ikastetxe eta beste agente sozial batzuei zuzenduta dago eta asoziazionismo, boluntariotza, parte-hartze sozial eta garapen komunitario, baliabide informatiko eta teknologiko edo trebakuntza eremu espezifikoetako jakintzagaiak hartzen ditu barne: Adingabeak, drogazaletasunak, aisia eta astialdia, garapenerako lankidetzeta, ingurumena, kultura, emakumea eta berdintasuna, ezgaitasuna, adinekoak, emigrazioa, gizarte-esklusioa...

• Profesionalentzako trebakuntza

Langileen gaitasun eta prestakuntza hobetzeko pertsona eta entitateei zuzenduta. Lanerako trebakuntza eta Etengabeen jartzen du arreta.

Lanerako trebakuntzak prestakuntza akademiko egokia ez duten eta lana aurkitzen uzten ez dien pertsonen zuzenduta dago. Beraz, ibilbide pertsonaletatik lan-merkatuko eskariei arreta jartzen zaie. Doako trebakuntza eta ezaguna da eta ekintza sozialeko beste entitate batzuk ere hartzen dute parte. Egindako ikastaro batzuk tratu txarreko egoeran dauden emakumeen esku-hartzea, entitate eta proiektu sozialen kudeaketa, etxeko laguntzaileak, eragile soziokulturalak, eskolaz kanpoko ekintzetako monitorea...

Etengabeko trebakuntza langileen gaitasuna eta prestakuntza hobetzeko entitateei zuzenduta dago. Halaber, **Trebakuntza Irekia Gizarte Esku-hartzearentzako** egiten da ikastaro katalogo zabal batekin; eta **Entitateentzako Trebakuntza Espezifikoak**, edukiak, ordutegia eta burutze datak entitate edo enpresen neurria moldatzen diren ikastaroak ere egiten dira.

Adingabeak, familiak, zerbitzu gerontologiakoak eta sozio-sanitarioak, animazio soziokultural eta astialdia, ezgaitasuna, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, immigrazioa eta ikastetxeekin esku-hartzeari ekiten dien entitateekin egiten da lan.

• Enplegua

EDE Fundazioak informazio, orientazio, trebakuntza, bitartekotza eta auto-enplegurako laguntza Zerbitzu eta Ekintza ezberdin garatzen ditu. Bestalde, Langairen -Eusko Enplegu Zerbitzua eta EIN- zentro laguntzailea da.

EDE Fundazioa > Kontsultoretza soziala

Ekusio egoeran edo desabantaila sozialean eta haur, adoleszente eta gazteen bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko ekimen publiko eta pribatuaren garapena bultzatu eta laguntzen du.

Zerbitzu honek entitate eta proiektu berritzaile batzuk bultzatzen ditu; "aurreratutako kudeaketa" prozesuak hirugarren sektoreko eta administrazio publikoko entitateetan; planak eta sare lokalak zerbitzu sozialen eremuetan, kulturean, gazterian, berdintasunean, immigrazioan...

Kontsultoretza sozial hau irabazi-asmorik gabeko erakundeetara zuzenduta dago: elkartetara, erakundeetara, ekimen sozialeko kooperatibetara... baina baita administrazio publikoetara ere, tokiko administrazioari arreta bereziarekin; IAGE bat eratu nahi duten edo ekimen kolektibo bat burutu nahi duten esku-hartze sozial proiektu bat duten pertsonen ere.

Kontsultoretza lana entitate edo erakunde bakoitzerako laguntza zuzena eta pertsonalizatuaren bidez egiten da.

• Erakunde kontsultoretza eta estrategikoa

Erakunde diagnosis. Plangintza estrategikoa eta operatiboa (plan estrategikoa eta kudeaketa planak sortzea). Erakundearen ezaugarriak eta hobetzea...

• Proiektu kontsultoretza

Proiektuak identifikatzea eta baloratzea, ikuspegiak eta esku-hartzean metodologia berritzaileak. Laguntza teknikoa zerbitzu eta proiektu berrien diseinuan. Kudeaketa hobetzeko laguntza. Ebaluaketa eta zerbitzuak. Sustatzaileak lagundu...

• Giza Baliabideen kontsultoretza

Trebakuntza Planen kudeaketa integrala. Giza Baliabideen Kudeaketan laguntza integrala Garapen profesionalen prozesuen diseinua...

• Kalitate kontsultoretza eta Erantzukizun soziala

Kalitate sistemak, kudeaketa etikokoak eta sozialki erantzuleak, eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza teknikoa. Entitateak lagundu ziurtapen edo kanpo-ebaluaketa prozesuetan.

• Gazte kontsultoretza eta parte hartzea

Kontsultoretza integrala politika eta gazte zerbitzu ezberdinak diseinatu, bultzatu eta egiteko kudeatzen dituen parte-hartzeko prozesuak; parte-hartzeko ekintzetara zuzenduta dauden ikasketa eta ikerketa egiten ditu; edo parte-hartzearen promozioa, planak eta prozesuak, trebakuntza, gidak eta argitalpenez gain, gaztea garapenaren agente gako bezala.

• Komunikazio kontsultoretza

Komunikazio planak eta jasagarritasun memoriak egitea.

• Genero kontsultoretza

Emakume eta gizonen arteko berdintasun planak eta adiskidetzeko planak diseinatu, martxan jarri, jarraipena eta ebaluaketa egin. Erakunde sozial eta instituzioetan berdintasun prozesuak diseinatzeko eta hobetzeko laguntza teknikoa.

- **Zerbitzu bereziak administrazio publikoak eta erakundeentzako**

Tokiko planak egitea. Oinarriak lehiaketa, deialdi, laguntza eta abarrerako diseinatzea. Proiektuak baloratzea eta jarraitzea. Idazkaritza teknikoak kudeatzea...

- **INDARTU programa**

Laguntza programa eta erakundeak indartzea, BBK Gizarte Ekintzarekin batera, Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko entitateetara zuzenduta.

EDE Fundazioa >

Informazio, dokumentazio eta azterketa sozialeko zerbitzuak

Giza esku-hartzearen arloan lan egiten duten pertsona eta entitate publikoei eta hirugarren sektorekoei zuzenduta. Bere helburua, informazio eta dokumentazio espezializatua eskuragarri egiteko bide produktuak eta zerbitzuak garatzean datza. Halaber, giza esku-hartze arloko gaietan aurrerapena eta ikerketaren alde egitea ere badu xedetzat, banaka edo sareen bitartez. Hori horrela, informazio eta dokumentazioaren kudeaketarako barne eta kanpo prozesuen hobetzean entitateei laguntza ematen saiatzen da. Era berean, giza esku-hartzearen arloan aplikatu daitezkeen analisi eta hausnarketa prozesuak eta ikerketak sustatzeko helburua du.

• Informazio eta dokumentazio zentroa

Bilbon dagoen EDE Fundazioaren egoitzan dituen instalazio eta zerbitzuetatik baliabide dokumentalak eman eta zabaltzen ditu. Kontsultak bertaratzu edo "linean" egin daitezke, EDE Fundazioaren web orritik.

• Entitateentzako zerbitzuak

Barne prozesuetatik: Informazioaren kudeaketa eredu eta sistema, tresna, produktu eta edukien garapen eta kudeaketa ereduaren diseinua. Kanpo zerbitzuak baita ere: informazio eta dokumentazio proiektuentzako aholkularitza eta horiek lantzeko laguntza emanez.

• Zerbitzu espezializatuak

Eskatutako esku-hartze edo ikerketa arloetan eguneratutako informaziorako Harpidetza zerbitzuak. Berri dokumentalen buletina, Berri buletina, Lege alertak...

• Gazteentzako informazio bulegoa

Gazteen eskura dagoen zerbitzu doanekoa eta irekia da. Bere xedea, beraientzako interesa edo eragina duten gai nabarmenen inguruan argibideak eta aholku ematea da.

• Azterketa sozialak

Giza esku-hartzearen arloan aplikatu daitezkeen analisi eta hausnarketa prozesuak eta ikerketak, ondorengoei zuzenduta: Herri administrazioak, bereziki tokiko administrazioa eta hirugarren sektoreko entitateak.

Suspergintza Elkartea

Suspergintza Elkartea > Instalazioak eta aterpetxeak

Suspergintza Elkarreak instalazio eta aterpetxe sare zabala eskaintzen du, gizarte entitateek, elkarrekin eta taldeek gizarte-hezkuntzako edo aisialdiko eginkizun mota oro gara ditzaten antolatutako guneak izan ditzaten.

• Mañarikua egoitza - Derio

Derioko apaizgaitegi zaharreko eraikinean dago eta ikasleentzako, eliteko kirolarientzako, tokiko enpresetako langileentzako eta emantzipatu nahi duten gazteentzako egoitza mistoa da. 2.800 m²-ko azalera eta 75 gela ditu. 2006tik aurrera Nazioarteko Aterpetxea da, eta aterpe-kideak eta kideak ere hartzen ditu. Partekatutako etxebizitza baten ezaugarriez gain, egoitza baten zerbitzuak eskaintzen ditu. Ordutegi askatasuna eskaintzen du eta minusbalotasun fisiko edo zentzumenezkoak dituzten pertsonentzako egokitua izan da. Bere langileen eginkizun nagusia egoitzan dagoen pertsona oro momentu orotan laguntzea da.

• Aterpetxeen sarea

Elkarreen, ikastetxeen, aisialdi elkarreen, kolektiboen, entitateen eta ikasleen beharrak asetzeko prest. Landa aterpetxeetatik Bilboko erdigunean ditugun instalazioetaraino. 8 eta 250 bitarteko tokirainoko edukierarekin. Talde bakoitzak bere neurria egindako eskaintzak aurki ditzake.

- Nazioarteko aterpetxeak: Lekeitio, Mañarikua
- Taldeentzako aterpetxeak: Norberak kudeatutakoak: Bermeo (hiru instalazio), Berriz, Ubidea, Sarria, Balmaseda, Elantxobe eta Erandio. Itunduak Artzentalesen, Lanestosan eta Turtziozen. Eta hitzartuak Asturiasen eta Katalunian.

Suspergintza Elkartea > Haurrak eta Gazteak

Gazteetan adituak diren Informazio eta Dinamizazio zerbitzuak eskaintzen ditu, eskarmentu handiarekin, baita diziplina anitzeko lantalde tekniko ere, gizartearekiko konpromiso maila altu eta gaitasun profesional handikoa.

• Gazteentzako informazio eta emantzipazio udal zerbitzuak

Gazteen banakako eta gizartearen barneko garapenerako informazio, aholkularitza eta arretarako erreferentzia gunea: Aholkularitza zerbitzuak (sexualitatea, ikasketak, etxebizitza...), Gazteentzako informazio guneak, Gazteen ekimen eta parte-hartzearen Sustapena...

• Emantzipazioan laguntzeko zerbitzua

Hurrengo gaietan orientabidea eskaintzera bideratutako ekintzekin: etxebizitza eskuratzea, lan merkatuan sartzea, etxeko ekonomia...

• Gazteentzako udal ekipamenduak

Gazteentzako gelak, Gazteguneak, Gaztelekuak; topaguneak, parte-hartzea, informazioa, aisialdia eta ekimen banakakoak eta kolektiboak garatzea. Gazte ekimenak, borondatezkoak eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak eskaintzen dira. Halaber, gazteen elkarrekin zerbitzu ematen zaie, Lantegiak eta ikastaroak antolatzen dira...

- **Animazio eta Hezkuntzako Aisialdi Programak** (asteburu eta oporraldietan)

Lantegi eta jardueren eskaintza zabala, ekitaldiak, jardunaldiak, txapelketak eta aisialdi lehiaketak, betiere gozamenerako antolatutak; parte-hartzea, protagonismoa eta gazteen topaketak ere sustatzen dira.

- **Udaleku eta Landa-lanen kudeaketa**

Kultura, kirol, ingurune eta multiabenturako programak. Era berean, euskara indartzeko programak eskaintzen dira, honako aukera hauen bitartez: Udal programak, aterpetxeetan egonaldi programak (“Itsas Eskola”, “Naturaren gela”, “Ordezko energiak”...).

- **Gizarte-hezkuntzako eta kultura programen kudeaketa osoa**

Balioen heziketa sustatzen dute, nerabeen eta gazteen garapen eta gizarteratzerako berebizikoak diren zenbait gai jorratuz: Kulturaren edo kontsumoaren eta ingurumenaren gaineko ibilbide eta jarduerak; hezkuntza eta kulturartekotasun dinamika programak; BAKEAren aldeko hezkuntza-programak; eta gatazken ebazpena.

- **Aisialdi programen kudeaketa ikastetxeetan**

DBH zikloi egokituak eta ikastetxearen planaren arabera: Jolastokien dinamizazioa, liburutegiak, gazteentzako gelak, eskolaz kanpoko jarduerak eta lantegiak, aisialdi programa osoak, eta jardunaldiak, jaiak eta gaikako asteak.

Suspergintza Elkarteak > Adinekoak eta familia

Adinekoak eta beren familiak Suspergintza Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuetako ardatzetako bat da. Zerbitzu horiek, adinekoentzako programen inguruan eta beren zaintzaileentzako arretaren eta proiektu berritzaileentzako laguntzaren inguruan antolatzen dira.

- **Gerontologiako programak**

Esku-hartze psikosoziala eta animazio suspergarria egoitzetan.

Egoitzan bizi direnen autonomia hobetzera bideratuak. Adinekoen behar eta eskakizunak asetzen saiatzen da, modu horretan bere auto-estimua eta bizi-kalitatea hobetuz. Psikoestimulazioa, orientazioa errealitatean, memoria-lanketa, ezagutza-trebetasunak, irteerak eta txangoak, lantegiak, eskulanak, etab. egiten dira.

Dinamizazio eta animazio programa adinekoen zentroetan.

Zahartze aktiboa sustatzen du eta adinekoa gizarteratuko duen eta bere autonomia pertsonala bultzatuko duen gizarte-ingurunea sortzen saiatzen da.

Laguntza soziala eta laguntasuna.

Gizarte laguntza behar duten erakundeetan urteak emandako pertsonak asetzen saiatzen da. Horretarako, bere ezaugarriak kontuan hartzen dira eta alde zuzenetik ezarritako banakako arreta plana jarraitzen da.

Adinekoen Kontseiluen dinamizaziorako laguntza teknikoak

Adinekoen Kontseiluen eta horiei lotutako entitate, erakunde eta elkarten dinamizaziorako laguntza teknikoko zerbitzua.

• Zaintzaileentzako arreta

Senitartekoei laguntzeko udal zentroen kudeaketa

Inoren menpeko adinekoen zaintzaile diren senideentzako arreta osoa abiapuntutzat hartzen du. Zaintzaileek beren senitartekoa eta beren burua zaintzeko trebetasunak ezagut eta lor ditzaten esku hartzen du. Informazioa, orientabidea, aholkularitza, prestakuntza eta abar eskaintzen ditu.

Familia ingurunean menpekotasunaren arretarako zerbitzua

Menpeko adinekoen zaintzaileentzako prestakuntza eta informazioa eskaintzen du. Taldeko laguntza psikologikoa eta auto-laguntzako taldeak. Gizartearen informazio eta sentsibilizazio ekintzak.

• Berrikuntza eta garapen proiektuen laguntza

Adinekoen bizitza-maila hobetzera bideratua; besteak beste, honako hauek sartzen dira barne: "Eider and Life" (telelaguntza sistema) eta "3G Trike" (hiriko ibilgailu arina).

Suspergintza Elkarteak > Emakumea

Suspergintza Elkarteak emakumearen arloko zerbitzuak diseinatu eta kudeatzen ditu, esku-hartze soziala, kulturala eta hezkuntzazkoa abiapuntutzat hartuz.

Hona hemen garatzen diren jarduerak:

- Emakumeentzako heziketa-arreta zerbitzua.
- Familiaren esku-harmen programa, etxeetako emakumeen aurkako indarkerian aditua.
- Lantegien kudeaketa: auto-estimua, jabeakuntza, lanen elkartrukea...
- Emakumeentzako ekipamenduen kudeaketa; emakumeentzako etxeak, emakumeentzako arreta zerbitzua.
- Jardunaldi eta erakusketen antolakuntza.

Suspergintza Elkarteak > Kultura

Bere helburua, kultura sortzeko gizartearen parte-hartzearen aldeko ekintzak, proiektuak, zerbitzuak eta ekimenak sustatu, bultzatu, garatu eta bideratzea da. Horretarako, ondorengo hiru jardunbideak zehazten dira:

Zerbitzuen kudeaketa: Kultura izaerako zerbitzu ezberdinak osoki kudeatzean datza (Kultur Etxeetako zerbitzuak, Auzo etxeak, udal lantegiak, etab.), hiritarren parte-hartzea eta kulturako sormen kolektiboa sustatuz. Betiere hiritarren parte-hartze aktiboari lehentasuna emango zaio.

Norberaren proiektuen kudeaketa: teknologia berrien erabilpenaren inguruan, eta osoki Euskaraz burututako parte-hartze kultural eta zabalkunde proiektuak. Horiek bideratzeko, berrikuntza teknologikoa eta parte-hartze askearen aldeko zein tokiko eta nazioarteko kultura sormenaren zabaltze eta sustapenaren aldeko ekintzak bideratzen dira, Internet bidezko esku-hartzea tartea.

Bestelako proiektuetan laguntzea eta parte hartzea. Laguntza eta parte-hartze protokoloen bitartez (artistikoak, eszenikoak, musikalak, literarioak, ondarezkoak...), kolektiboekin (antzerki taldeak, kultura elkarteak, kolektibo berebizikoak...) elkarlanean aritzen dira proiektu horietan. Halaber, sustatzaileekin (proiektu artistikoen ekoizpen-etxeak, arte eta kultura arloetako prestakuntza entitateak...) ere egiten dute lan. Betiere proiektu hauek hiritarren esku-hartze aktiboa bultzatzen dutela, errealitate sozial eta kulturalaren analisia eta hausnarketa sustatzen dutela eta garatzen diren inguruaren errealitatearen barne kokatzen direla kontuan hartzen da.

ST3 Elkarteak

ST3, gizarte entitateek izan ditzaketen arazo teknikoei irtenbideak, erantzunak eta laguntza osoa ematen dien elkarteak da. Erakunde bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak hartzen ditu kontuan.

Osatzen duen lantaldeak, ezaguera eta prestakuntza teknikoak izateaz gain, gizarte, kultura eta hezkuntzazko sektorean ibilbide eta eskarmentu handi du, EDE Fundazioaren eta Suspergintza Elkartearen baitan lortutakoa.

ST3 Elkarteak > Komunikazio eta Diseinu Agentzia

Gizarte komunikazioaren agentziak entitate bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitzen diren komunikazio eta irudi zerbitzu sarea eskaintzen du. Hori horrela, beren komunikazio beharrentzako erantzun profesionalak lortuko dituzte entitateek.

- Irudi korporatiboa.
- Erakundearen papertegia.
- Publizitate euskarriak.
- Web orriak.
- Prentsaurrekoren antolaketa.
- Ekitaldien antolaketa.
- Erreportaje grafikoak.

ST3 Elkarteak > Informatika eta Teknologia berriak

Informatika sailak teknologia berrien arloan irtenbideak, erantzunak eta laguntza teknikoak eskaintzen ditu. Azken finean, irtenbide informatiko osoak garatzea du helburu, entitate bakoitzaren neurria.

- Mantentze informatikoa.
- Web zerbitzuak.
- Ekipamendu informatikoen salmenta eta konponketa.
- Softwarearen salmenta.
- Aholkularitza teknikoak.
- Ekipamenduen alokairua.
- CD eta DVDen bikoizketa.
- Sareak.

ST3 Elkartea >Aholkularitza eta ekonomia- eta lan-kudeaketa

Zerbitzu honen bitartez lan-, kontabilitate- eta zerga-kudeaketaren inguruan sortzen diren beharrak asetzen dira. Hau bideratzeko, indarreko legea eta erakunde bakoitzaren berariazko ezaugarriak aintzat hartzen dira.

- Lan-kudeaketa.
- Kontabilitate-kudeaketa.
- Zerga-kudeaketa.

ST3 Elkartea >Mantentze eta konponketa zerbitzuak

Instalazio eta lokalen mantentze eta konponketa zerbitzuak lokaletan egin beharreko konponketa eta zaharberritzeak kudeatzeko eta burutzeko aukera ematen du. Era berean, entitate horien egoitzetan aurkitzen diren ekipamendu eta sistemak behar dituzten konponketak ere hartzen ditu bere gain.

- Instalazio eta ekipamenduen diseinua.
- Konponketa eta obra txikien burutze eta gainbegiratzea.
- Altzari eta ekipamenduen erosketa edota muntaketa.

EDE TALDEAREN PROIEKTU ESANGURATSUENAK

EDE Taldeak, bakarka nahiz beste entitate eta administrazioekin batera, proiektu adierazgarri ezberdinak garatzen ditu giza esku-hartzearen arlo anitzetan:

Bakeola

Gatazken ebazpen egokian aditua den zentro hau, gizarte eta hezkuntzako eragileekin ikuspegi integrala kontuan izanik egiten du lan. Elkarbizitza hobetzerako bideratutako prozesuak bultzatzen ditu, baita Giza Eskubideen sustapena, komunitateen garapena eta Bake kultura erdiesteko gizartearen eraikuntza ere. Ikastetxeekin, gizarte-hezkuntzako entitate eta elkarteekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, herri administrazioekin, teknikari eta politikariek eta ehundura sozialarekin elkarlanean ari da: pertsonak eta kolektiboak.

Zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu: Udal eta ikastetxeetako elkarbizitzarako planak; Prestakuntza eta gaitasuna; Bakea lortzearen aldeko heziketarako gizarte-hezkuntzako programak; "Trukeme", lankidetzajolasetarako baliabide guinea; Pertsona, entitate, auzo eta herri sareen sustapena.

bolunta, Boluntariotza eta elkarlanean agentzia. **Ganbara**

www.bolunta.org / www.ganbara.net

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza sailak, Bilbao Bizkaia Kutxak eta EDE Fundazioak elkarlanean bultzatutako proiektua. Izan ere, erakunde hauek, Bizkaiko boluntarioen eta boluntariotza erakundeen sustapen eta laguntzarako ekintza eta zerbitzuak hobetzea beharrezkoa iritzi diote. Orokorrean, gizartearen esku eta, bereziki, boluntarioen eta erakundeen esku dagoen baliabidea da. Gizarte bidezkoa eta parte-hartzailea eraikitzeko prozesuan lagunduko duen baliabidea, hain zuzen.

Horren zerbitzuak sei jardunbideren inguruan antolatzen dira: Boluntariotza; Informazioa; Aholkularitza; Prestakuntza; Sustapena eta Ganbara.

Ganbara elkarte guinea, ehundura soziala sortzen laguntzen duen eta Bizkaiko entitate solidarioen lana bultzatzen duen zerbitzua da. Besteak beste, behin behineko egoitza gisa erabiltzeko bulegoak eskaintzen ditu, baita erabilera anitzetako gelak, zerbitzuak eta baliabide teknikoak ere.

Hirugarren sektorearen behatokia

www.3sbizkaia.org

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza sailak, BBK Gizarte Ekintzak eta EDE Fundazioak 2007tik aurrera elkarlanean burututako proiektua da hau.

Hirugarren sektorea sustatzeko tresna gisa sortua izan da, osatzen duten erakunde eta sareen derrigorrezko partaidetzarekin. Era berean, sektorean interesik daukaten eta bere sustapena bere gain hartu duten eragileen arteko komunikazio gune gisa sortu da: unibertsitateak eta prestakuntza zentroak, ikerketa sareak, "gizarte" kontsultoretzak...

Zaintzea

www.zaintzea.org

Senide zaintzaileen laguntzarako Bilboko Udalaren Udal Zentroa da. Menpeko senideak denbora luzean zaintzeak zaintzaileengan duen eragin kaltegarria saihesteko eta azken hauei arreta egiteko beharra dela eta sortua izan da. Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza sailaren eta Suspergintza Elkartearen arteko lankidetzaren emaitza izan da. Zaintzaileek bere senideen eta bere buruen zainketaren inguruko trebetasunak ezagutu eta lortzera bideratutako jarduerak burutzen ditu.

Nontzeberri

www.nontzeberri.com

Sarean kultura zentzu zabalenean zabaltzeko helburua duen euskarazko web ataria. Edukiak ekimen anitzen bitartez bideratzen dira (Nontzeflash, Nontzefilm, Kale Sound Musika Lehiaketa, Argazklik...); hala ere, beste hizkuntzei ere egiten zaie arreta.

Biltzen, Bitartekotza eta kulturarteko hezkuntzako komunitateen ekimeneen koordinazio zentroa.

Immigrazio Zuzendaritzari (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila - Eusko Jaurlaritza) atxikitako titulartasun publikoko zerbitzua da, administrazioentzako eta sozietate zibilarentzako laguntzako baliabide gisa. Diziplina eta kultura anitzeko lantaldeak osatzen du eta kulturarteko ekimenak sustatu, lagundu eta koordinatzeko sortu da. Euskal gizarteko kultura komunitate ezberdinen arteko elkarrizketa dinamizatzeko helburua ere badu, baita euskal gizartearen eta administrazioen arteko elkarrizketa dinamizatzeko ere.